

ASTE SANTUA 2012: Euskal Herriko gazten dastaketa.

Sagardoetxeatik sagardoaren kulturaz gozatzeko proposamena luzatzen dizugu museoko bisita, Euskal Herriko gazten dastaketa eta sagardotegi tradizional bateko otorduarekin.



Sagardoetxeak sagarra eta sagardoaren historia eta errealitatera gerturatzeko **hiru gune** dauzka: **sagastia, museo-gunea** eta **dastaketa gunea**, sagardoa txotx-eko ohituran, muztioa eta likorea dastatzeko aukera ematen duen gunea.

Euskal Herriko gazten

dastaketa

Aste Santu honetan, Euskal Herriko gazta ezberdinak dastatzeko aukera eskainiko dugu: Idiazabal J.D, Roncal J.D. eta Irati J.D.

Sagardotegia

Sagardoaren munduko esperientzia osatzeko, eskualdeko sagardotegi tradizional bat ezagutu eta otordu berezi batez gozatzeko aukera proposatzen dizuegu, sagardotegiko ohiko menua dastatuaz: bakailao tortila, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta eta azkeburuko gisa gazta irasagar eta intxaurrekin.

Ikusi Aste Santuan irekita dauden sagardotegien zerrenda.

Sagardoetxeako ordutegiak

Apirilaren 5etik 9ra: 11:00-14:00 · 16:30-20:00

Apirilaren 10etik 14ra: 11:00-13:30 · 16:00-19:30

Apirilaren 15ean: 11:00-14:00

Tarifak

Sagardoetxeako bisitak:

5€ pertsonako (bisita + sagardoa, muztio, likore eta Euskal Herriko gazten dastaketa barne).

Sagardotegiko bazkaria/afaria:

Sagardotegiko ohiko menua **28-32€ pertsonako** (sagardotegi bakoitzaren arabera prezioa).



Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!

Harpidetza

Sagardoaren museoa
Museo de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel. 00 34 943 550 575
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com

Sagardodenda
Euskal Sagardoaren Online Denda



EUSKADI

GIPIZKOA

Autononoko Erakundeak